

Vitoria-Gasteiz, 2014ko urriaren 14a.

Vitoria-Gasteiz a 14 de octubre de 2014.

BILDU DIRA

Uraren Euskal Agentziaren zuzendari nagusi Iñigo Ansola Kareaga jauna eta Pasaiaiko Udaleko alkate-presidente Amaia Agirregabiria Alberdi andrea.

SE REUNEN

El Sr. D. Iñigo Ansola Kareaga, Director General de la Agencia Vasca del Agua y la Sra. Dña. Amaia Agirregabiria Alberdi Alcaldesa-Presidenta del Ayuntamiento de Pasaia.

ETA ESKU HARTU DUTE

Lehenak, Uraren Euskal Agentziaren zuzendari den aldetik eta Agentziaren Estatutuen 7.2.g) artikulua ematen dizkion eskumenak betez.

INTERVIENEN

El primero de ellos en su calidad de Director General de la Agencia Vasca del Agua y en virtud de la atribución que le confiere el artículo 7.2.g) de los Estatutos de la misma.

Bigarrenak, udalaren legezko ordezkari gisa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21. artikulua ematen dizkion ahalmenak erabiliz.

La segunda, en ejercicio de la capacidad legal de representación del Ayuntamiento que le confiere el artículo 21 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local

Aldeek LANKIDETZA HITZARMEN hau sinatzeko beharrezko legezko gaitasuna aitortzen diote elkarri eta, horretarako

Las personas intervinientes se reconocen mutuamente capacidad legal para celebrar el presente CONVENIO DE COLABORACIÓN, y a tal efecto





HONAKOA AZALTZEN DUTE

LEHENENGOA.- Euskal Autonomia Estatutuaren 10. artikuluko 11. eta 33. idatz-zatien arabera, Euskal Autonomia Erkidegoari dagokio, bere lurralde eremuaren barruan, aprobetxamendu hidraulikoen gaineko eskumen eskusiboa, baldin eta ibaiek ibilbide osoa Euskal Autonomia Erkidego barruan egiten badute, bai eta Estatuak legez interes orokorreko zatia jo ez dituen eta beste autonomia erkidego batzuei eragiten ez dieten obra publikoen gainekoak ere.

Uztailaren 12ko 297/1994 Dekretuaren bidez - Estatu Administrazioak Euskal Autonomia Erkidegoari baliabide eta ustiakuntza hidraulikoen arloko funtzioak eskualdatzeari buruzko Eskualdatzeen Batzorde Mistoaren Erabakia onartu zuena - Estatuari zegozkion funtzioak eta bitartekoak EAera eskualdatu ziren, besteak beste, toki-korporazioei laguntza ematekoa Autonomia Erkidegoaren lurraldean egiten diren obra hidraulikoak gauzatzeko, betiere, jarduketa horiek EAEko Administrazioak interesgarri jotzen dituzenean, horiek egiteak beste autonomia erkidego bati eragiten ez diotenean eta legez Estatuaren interes orokorreko zatia jotzen ez direnean.



EXPONEN

PRIMERO.- Que, conforme al artículo 10, párrafos 11 y 33, del Estatuto de Autonomía para el País Vasco, corresponde a la Comunidad Autónoma, dentro de su territorio, la competencia exclusiva en aprovechamientos hidráulicos, cuando las aguas discurran íntegramente dentro del País Vasco, así como en obras públicas que no tengan la calificación legal de interés general del Estado o cuya realización no afecte a otras Comunidades Autónomas.

Por Decreto 297/1994, de 12 de julio, por el que se aprueba el Acuerdo de la Comisión Mixta de Transferencias sobre traspaso de funciones de la Administración del Estado a la Comunidad Autónoma del País Vasco en materia de recursos y aprovechamientos hidráulicos, se han transferido las funciones y medios correspondientes, entre otros, al otorgamiento de auxilios a corporaciones locales para la ejecución de obras hidráulicas que se realicen en el territorio de la Comunidad Autónoma, cuando tales actuaciones sean de su interés, su realización no afecte a otra Comunidad Autónoma y no tengan la calificación legal de interés general del Estado.



BIGARRENA.- Ekainaren 26ko 1/2006 Legeak Uraren Euskal Agentzia sortu zuen, ingurumen-gaietako eskumena duen sailari atxikitako zuzenbide pribatuko erakunde publiko gisa, eta lege horren arabera, Euskadin uraren inguruko politika gauzatzea du xede agentzia horrek. Horri dagokio, besteak beste, Estatuko Administrazioak transferitu, eskuordetzan eman edo Agentziaren esku utzitako funtzioak gauzatzea.

HIRUGARRENA.- 2007ko azaroaren 23an, EAEko Administrazioak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Gipuzkoako Ur Kontsortzioak, Añarbeko Uren Mankomunitateak eta Txingudiko Zerbitzu Mankomunitateak "GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOAN 2003-2006 ALDIAN SANEAMENDUKO AZPIEGITURAK ERAIKITZEKO AKORDIO MARKOA" 2007-2011 ALDIRA ZABALTZEKO AKORDIOA izenpetu zuten".

Zabaltzeko akordio horren hirugarren klausulan xedatutakoaren arabera, EAEko Administrazioak Pasai Donibaneke saneamendu-lanen kostuaren %75 gauzatzeko eta finantzatzeko konpromisoa hartu zuen.

SEGUNDO.- Que por Ley 1/2006, de 26 de junio, se creó la Agencia Vasca del Agua, como ente público de Derecho Privado adscrito al Departamento competente en materia de medio ambiente, cuyo objeto es llevar a cabo la política del agua en Euskadi y al que le corresponde, entre otras funciones, el ejercicio de aquellas transferidas, delegadas o encomendadas por la Administración estatal.

TERCERO.- Que el 23 de noviembre de 2007, la Administración de la CAPV, la Diputación Foral de Gipuzkoa, el Consorcio de Aguas de Gipuzkoa, la Mancomunidad de Aguas del Añarbe y la Mancomunidad de Servicios de Txingudi suscribieron el ACUERDO DE AMPLIACIÓN AL PERIODO 2007-2011 DEL "ACUERDO MARCO PARA LA CONSTRUCCIÓN DE INFRAESTRUCTURAS DE SANEAMIENTO EN EL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA EN EL PERIODO 2003-2006".

De conformidad con lo estipulado en la cláusula tercera de dicho Acuerdo de ampliación, la Administración de la CAPV se comprometía a ejecutar y financiar el 75 % del coste de las obras de Saneamiento de Pasai Donibane.



Era berean, konpromiso horren barruan honako hau zegoela zehaztu zen: *"proiektuak eta haien kontratazioarako administrazio-izapidea egitea, haste beretik jaso arte"*.

LAUGARRENA.- Dokumentu hauek idatzi dira:

Pasaiaiko Udalak:

-Donibane kalean azpiegiturak birgaitu, lurperatu eta koordinatzeko proiektua, 2009ko uztailean.

Uraren Euskal Agentziak:

-Pasai Donibaneko saneamenduaren proiektua, 2009ko otsailean.

BOSGARRENA.- Ikusita zer interes daukaten bi erakundeek bi proiektuak gauzatze-kostuak eta bizilagunei sortutako eragozpenak ahal den neurrian gutxituz egiteko, komenigarritzat jotzen da aztertzea zer aukera tekniko dagoen bi proiektuak bakar batean bateratzeko eta proiektatutako kolektore berria Donibane kalearen azpian gauzatzeko, hartatik igarotzen diren azpiegiturak eta zerbitzuak lurperatu eta berritzearekin batera.

Igualmente se especificaba que dicho compromiso incluía *"la elaboración de los proyectos y la tramitación administrativa para su contratación, desde su inicio hasta su recepción"*.

CUARTO.- Que se han redactado los siguientes documentos:

Por parte del Ayuntamiento de Pasaia:

-Proyecto de Rehabilitación, Soterramiento y Coordinación de Infraestructuras en C/ Donibane, en Julio de 2009.

Por parte de la Agencia Vasca del Agua:

-Proyecto de Saneamiento de Pasai Donibane, en Febrero de 2009.

QUINTO.- Que en vista del interés de ambas instituciones en ejecutar los dos proyectos aminorando en lo posible los costes de ejecución así como las molestias en el vecindario, se considera conveniente analizar la posibilidad técnica de refundir ambos proyectos en uno sólo y ejecutar el nuevo colector proyectado bajo la calle Donibane, al mismo tiempo que se soterran y renuevan las infraestructuras y los servicios que discurren por ella.





Donibane kaleko ingurune fisikoan jarduteak berekin dakartzan arazo teknikoak direla eta, beharrezkoa da, lurraren ezaugarrien ikerketa geotekniko xehatua egiteaz gain, Udala eta Agentzia lankidetzan estuan aritzea proiektua idatziko duen taldearekin, kaleko eraikin bakoitza nola dagoen aztertzeko bisitak egin beharko direlako, eta, gainera, Udalak egungo azpiegiturei buruz daukan informazio guztia izan beharko da. Era berean, ezinbestekoa izango da Udala eta Añarbeko Uren Mankomunitatea -azpiegitura kudeatuko du- elkarlanean aritzea erabakiak hartzeko prozesuan, idazketa-taldeak kolektore berria egiteko egon daitezkeen aukerak zehaztu ondoren.

SEIGARRENA.- Parte diren erakunde biek Pasaia badiaren biziberritzea bultzatzeko interes estrategikoa dutela eta ekintza hau esparru honetan kokatzen dela, hain zuzen. Hori dela eta EAEko administrazioak ezohizko izaera aitortzen dio egitasmo honi, beronen finantziazioaren eta gauzatzearen alorretan.

Las dificultades técnicas que conlleva actuar en un entorno físico como el de la calle Donibane hacen necesario, además de un detallado estudio geotécnico de las características del terreno, una estrecha colaboración del Ayuntamiento y la Agencia con el equipo redactor del proyecto ya que se habrán de efectuar visitas de reconocimiento a cada uno de los edificios de esta calle y será preciso además contar con toda la información que sobre las infraestructuras existentes disponga el Ayuntamiento. Igualmente resultará imprescindible la colaboración municipal y la de la Mancomunidad de Aguas del Añarbe -futuro gestor de la infraestructura- en el proceso de toma de decisiones una vez se concreten, por el equipo redactor, las posibles alternativas de construcción del nuevo colector.

SEXTO.- Que las instituciones intervinientes compraten el interés estratégico de impulsar la regeneración de la Bahía de Pasaia, ámbito en el que se enmarca esta actuación. Por este motivo la Administración de la CAPV confiere al proyecto un carácter de excepcionalidad en aspectos relacionados con su financiación y su materialización.



Halaber, hitzarmen honen helburu den proiektu bateratua idatzi eta onartua izan ondoren, parte diren bi erakundeek hitzarmen berri bat sinatuko dute, non aipatu projektuan jasotako lanak ahalik eta azkarren egikaritzeko baldintzak eta konpromisoak zehaztuko diren. Hitzarmen berri horrek aurreikusi ahal izango du, halaber, proiektuaren egikaritzan interesa duten beste erakunde batzuek ere hitzarmenean parte izatea.

ZAZPIGARRENA.- Uraren Euskal Agentziak eta Pasaia Udalak komenigarritzat jotzen dute hitzarmen bat izenpetzea, alde bakoitzak, lehen aipatutako jarduketei dagokienez, bere gain hartutako konpromisoak jaso ditzan, eta hori guztia klausula hauek kontuan hartuta egitea.

KLAUSULAK

LEHENENGOA.- HITZARMENAREN HELBURUA.

Hitzarmen honen helburua da arautzea zer baldintzatan konprometitzen diren Uraren Euskal Agentzia eta Pasaia Udalak beste proiektu baten idazketan laguntzera, bakar batean bil ditzan "Donibane kalean

Asimismo, una vez se haya redactado y aprobado el proyecto unificado objeto de este convenio, las instituciones intervinientes acordarán, mediante la suscripción de otro convenio, las condiciones y compromisos que posibiliten la más inmediata ejecución de las obras del citado proyecto. Dicho convenio podrá incluir igualmente la participación de otras instituciones interesadas en el ejecución del proyecto.

SEPTIMO.- Que tanto la Agencia Vasca del Agua como el Ayuntamiento de Pasaia estiman conveniente suscribir un convenio que recoja los compromisos que ambas partes asumen en relación con las actuaciones antedichas, todo ello con arreglo a las siguientes.

CLÁUSULAS

PRIMERA.- OBJETO DEL CONVENIO.

Es objeto del presente Convenio regular las condiciones en las que la Agencia Vasca del Agua y el Ayuntamiento de Pasaia se comprometen a colaborar en la redacción de un nuevo proyecto que



azpiegiturak birgaitu, lurperatu eta koordinatzeko proiektua” eta “Pasai Donibaneko saneamenduaren proiektua” hurrengo klausuletan zehaztutako moduan.

BIGARRENA.- LANEN DEFINIZIOA.

Hondakin-uren kolektore-hodi biltzailea Añarbeko Uren Mankomunitateko saneamendu orokorreko sarearekin lotu arte eraikitzeko egin behar diren lanen definizioa jaso beharko du proiektuak. Gainera, udal-eskumeneko kanalizazioak berritzea gehitu beharko du; hau da: ur-hornidurako sarea; saneamendu-sareko kolektore sekundarioak, edo bajakoak; hiri-drainatzea; eta gas-zerbitzua, telefonia-zerbitzua eta energia elektrikokoa lurperatzea.

HIRUGARRENA.- URAREN EUSKAL AGENTZIAREN KONPROMISOAK.

Uraren Euskal Agentziak honako konpromiso hauek hartu ditu:

a) Ikerketa geoteknikoa eta obrak egiteko proiektua idazteko lanak kontratatzea

refunda el “Proyecto de Rehabilitación, Soterramiento y Coordinación de Infraestructuras en C/Donibane” y el “Proyecto de Saneamiento de Pasai Donibane” en uno sólo, en los términos establecidos en las cláusulas siguientes.

SEGUNDA.- DEFINICIÓN DE LOS TRABAJOS.

El proyecto deberá recoger la definición de las obras necesarias para la construcción de un Colector-Interceptor de las aguas residuales hasta su conexión con la red de saneamiento general de la Mancomunidad de Aguas del Añarbe. Además, deberá incorporar le renovación de las canalizaciones de competencia municipal, es decir, la red de abastecimiento de agua, los colectores secundarios, o en baja, de la red de saneamiento, el drenaje urbano y el soterramiento de los servicios de gas, telefonía y energía eléctrica.

TERCERA.- COMPROMISOS DE LA AGENCIA VASCA DEL AGUA.

La Agencia Vasca del Agua se compromete a:

a) Contratar los trabajos de redacción del estudio geotécnico y del proyecto de ejecución de las obras



b) Ikerketa geoteknikoa eta gauzatze-proiektua idazteko zerbitzuak gainbegiratzea.

c) Aipatu proiektua onartzea.

d) Lan horiek kontratatzeko benetako kostuaren %90 finantzatu eta ordaintzea, hitzarmen honetan aurreikusitakoari jarraiki.

Uraren Euskal Agentziak gehienez ere ehun eta hamazazpi mila euroko (117.000,00 €) ekarpena egiteko konpromisoa hartu du. Zenbateko hori 2014rako ordainketa-kreditua izango da, eta Agentziaren aurrekontutik finantzatuko da, 23680319 kontutik.

LAUGARRENA.- PASAIAKO UDALAREN KONPROMISOAK.

Pasaia Udalak konpromiso hauek hartu ditu:

a) Eragindako finka pribatuen barruan datuak hartzean, elkarlanean aritzea idazketa-taldearekin, haren lana erraztea, eta haren eskura jartzea proiektua idazteko interesgarria izan daitekeen informazio guztia.

b) Supervisar los servicios para la redacción del estudio geotécnico y del proyecto de ejecución.

c) Aprobar el citado proyecto.

d) Financiar y abonar el 90% del coste efectivo de la contratación de los trabajos en los términos previstos en el presente convenio.

El importe máximo previsto como aportación que compromete la Agencia Vasca del Agua, es de CIENTO DIECISIETE MIL EUROS (117.000,00 €), consistentes en un crédito de pago para el año 2014 que se financiarán con cargo al presupuesto de la Agencia, imputable a la cuenta 23680319

CUARTA.- COMPROMISOS DEL AYUNTAMIENTO DE PASAIA.

El Ayuntamiento de Pasaia se compromete a:

a) Colaborar y facilitar la labor del equipo redactor en la toma de datos en el interior de las fincas privadas afectadas y poner a disposición del mismo toda aquella información que resulte de interés en la labor de redacción del proyecto.



b) Aipatu proiektua onartzea.

b) Aprobar el citado proyecto.

c) Ikerketa geoteknikoa eta proiektua idazteak benetan daukan kostuaren %10 finantzatzea eta ordaintzea.

c) Financiar y abonar el 10% del coste efectivo de la redacción del estudio geotécnico y del proyecto.

Pasaia Udalak gehienez ere hamahiru mila euroko (13.000,00 €) ekarpena egiteko konpromisoa hartu du. Kopuru hori 2014rako bere aurrekontuaren ordainketa-kreditu batean gauzatuko da.

El importe máximo previsto como aportación que el Ayuntamiento de Pasaia, es de TRECE MIL EUROS (13.000,00 €), consistentes en un crédito de pago para el año 2014, con cargo a sus recursos presupuestarios.

BOSTGARRENA.- ORDAINTZEKO ERA.

QUINTA. FORMA DE PAGO.

Uraren Euskal Agentziari ordaintzeko, lehenbizi agentziak onartutako ziurtagiriak igorri behar zaizkio Udalari, eta aurrekontu-ekitaldian ziurtagiri bakoitzari dagokion proportzioa ordainduko zaio agentziari, hirugarren c) klausulan araututako gehieneko kopurua gainditu gabe.

El pago de las aportaciones a la Agencia Vasca del Agua se realizará previo traslado de las certificaciones aprobadas por ésta al Ayuntamiento, abonándose al citado Ente la proporción de cada certificación que corresponda por la anualidad presupuestaria, con el límite máximo de aportación establecido en la cláusula tercera c).

SEIGARRENA.- HITZARMENAREN JARRAIPENERAKO BATZORDEA.

SEXTA.- COMISIÓN DE SEGUIMIENTO DEL CONVENIO.

1.- Hitzarmen honen Jarraipenerako Batzorde bat eratuko da. Batzorde hori lau ordezkari osatuko dute. Bi Uraren Euskal Agentziakoak izango dira eta beste bi

1.- Se constituirá una Comisión de Seguimiento del convenio compuesta por cuatro representantes, dos de la Agencia Vasca del Agua y dos del Ayuntamiento

[Redacted signatures]



Pasaia Udalakoak. Hitzarmena sinatzen duen alde bakoitzak izendatuko ditu bere ordezkariak, honako eginkizun hauetarako:

a) Lan bakoitzerako behar diren izapideak erraztea eta arintzea.

b) Hitzarmen honen xede diren jardunak beteko direla bermatzeko behar diren neurriak proposatzea eta informatzea.

c) Hitzarmenak ekar ditzakeen interpretatzeko eta egiteko arazoei irtenbideak ematen saiatzea.

2.- Hitzarmena indarrean dagoen bitartean eta edozein alde hala eskatzen badu, batzordea jardunak ondo joan daitezen behar den guztietan bilduko da, presidentzia eta idazkaritza txandakakoa izanik. Bilkura egiteko kide guztiek bertan egon beharko dute eta erabakiak ere aho batez hartu beharko dira.

3.- Hitzarmenaren Jarraipenerako Batzordeari buruz hitzarmenak berak berariaz aipatzen ez dituen gaietan,

de Pasaia que se designarán, respectivamente, por las partes firmantes del presente Convenio, para el desempeño de las siguientes funciones:

a) Facilitar la remoción de los obstáculos que entorpezcan la celeridad de los trámites requeridos en cada caso.

b) Informar y proponer las medidas precisas para garantizar el cumplimiento de las actuaciones objeto del presente convenio.

c) Procurar la resolución de los problemas de interpretación y de ejecución que pueda plantear el convenio.

2.- Durante la vigencia del convenio y a propuesta de cualquiera de las partes, la comisión se reunirá siempre que lo requiera la buena marcha de las actuaciones, siendo rotatorias la presidencia y la secretaría de la misma. Los quórum de reunión y de adopción de acuerdos serán los de unanimidad de sus miembros.

3.- En lo no previsto expresamente en el convenio para la comisión de seguimiento, le será aplicable el



azaroaren 26ko 30/1992 Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 2. tituluko II. kapituluan kide anitzeko organoei buruz ezarritako araubidea aplikatuko da.

régimen de los órganos colegiados regulado en el capítulo II del título 2 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

ZAZPIGARRENA.- HITZARMENAREN ARAUBIDEA ETA INTERPRETAZIOA.

1. Hitzarmen hau administrazio-hitzarmena da, eta aplikatzekoa den antolamendu juridiko-administratiboaren bidez interpretatu eta garatuko da.

2. Hitzarmen honek edo hitzarmen honen betearazpenak sorraraz ditzakeen interpretazio-arazoak hitzarmenaren Jarraibiderako Batzordeak ebatziko ditu, aurreko klausulan esandakoari jarraituz; eta, horrela ezin badira ebatzi, azaroaren 26ko 30/1992 Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 8.3 artikulua xedatutakoari jarraituko zaio.

ZORTZITZIGARRENA.-HITZARMENAREN ONDORIOAK ETA IRAUPENA.

1.- Hitzarmenak ez ditu parte-hartzaileak

SÉPTIMA.- REGIMEN E INTERPRETACION DEL CONVENIO.

1.- El presente convenio es de naturaleza administrativa, rigiéndose en su interpretación y desarrollo por el ordenamiento jurídico y administrativo que le sea de aplicación.

2.- La resolución de los problemas de interpretación que puedan plantear el presente convenio o su ejecución serán resueltos por la comisión de seguimiento según lo referido en la cláusula anterior; si no fuera posible, se estará a lo dispuesto en el artículo 8.3 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

OCTAVA.- EFECTOS Y DURACIÓN DEL CONVENIO.

1.- El convenio no supondrá renuncia ni



behartuko nork bere eskumenei uko egin edo haiek aldatzera, eta hitzarmenaren ondorio diren konpromisoengatik erantzukizunak bakarrik hartuko dituzte beren gain.

2.- Hitzarmenak sinatzen denetik izango ditu ondorioak eta behartuko ditu aldeak, eta, azken lanen *obra-onarpena* egin arte indarrean jarraituko du.

BEDERITZAGARRENA.- HITZARMENA IRAUNGITZEA.

1.- Hitzarmena aurreko klausulan ezarritako indarraldia igaro delako edo hitzarmena hautsi egin delako iraungiko da.

2.- Aldeetako batek onartutako konpromisoak betetzen ez baditu, besteak eskubidea izango du zorrotz bete dezala eskatzeko edo hitzarmena hauts dadin eskatzeko. Hitzarmena bertan behera geratuz gero, aldeek erabakiko dute zer baldintzatan finantzatuko eta ordainduko diren egiten ari diren jardunak, bai eta, hala badagokio, jardunen obra-onarpena nola egingo den ere.

alteración de las competencias de las partes intervinientes, que asumen únicamente las responsabilidades inherentes a los compromisos que contraen en virtud del mismo.

2.- El convenio surtirá efecto y obligará a las partes intervinientes desde su firma, manteniéndose vigente hasta la recepción conforme del último de los trabajos.

NOVENA.- EXTINCION DEL CONVENIO.

1.- El convenio se extinguirá o bien por el transcurso del plazo de vigencia referido en la cláusula anterior, o por resolución.

2.- El incumplimiento por alguna de las partes de los compromisos asumidos facultará a la otra, o para exigir su estricto cumplimiento, o para solicitar la resolución del convenio. En caso de resolución, las partes determinarán las condiciones para financiación y pago de las actuaciones que se hallen en ejecución y en su caso, para la posterior entrega de las mismas.



Eta horren guztiaren ondorioz eta horrekin bat, aldeek idazpuruan adierazitako leku eta egunean sinatu dute hitzarmena bina aletan.

Y en virtud y de conformidad con lo establecido, firman los comparecientes, por duplicado, en el lugar y fecha expresados en el encabezamiento.

**URAREN EUSKAL AGENTZIAREN
ZUZENDARI NAGUSIA /
EL DIRECTOR GENERAL DE
LA AGENCIA VASCA DEL AGUA**


IÑIGO ANSOLA KAREAGA

**PASAIKO ALKATE-PRESIDENTEA
LA ALCALDESA-PRESIDENTA
DEL AYUNTAMIENTO DE PASAIA**


AMAIA AGIRREGABIRIA ALBERDI